

PRUDEN ETA JOSEFA: MIGRAZIOAREN BI ADIBIDE

Jon Mendizabal Ituarte

Eskerrik asko, Josepo.

Idazki honetan euskaldunok emigrante gineneko bi adibide azalduko ditut, egoki baiteritzot Europara milioika etorkin datozen une hauetan gure herriaren garai latzei heltzea. Hain zuzen ere, lan honek helburu hori dauka: gogora ekartzea euskaldunok, eta europarrok ere, gorriak eta bost pasa izan genituela, Ameriketara emigratu eta han latzak jasan genituela. Bestalde, Pruden eta Josefa gure familiako aitona eta *amuma* ditugu eta beraiek igarotako zenbait une latz azaltzen dira lan honetan; hala ere, nagusiki Prudenen gertakariak jaso ditut. Informazio-iturriei dagokienez, batez ere aitona idatzitako oroitzapenetan oinarritu naiz. Aldi berean, beren gertakizunak hobeki uler ditzagun, marko teoriko eta historikotik abiatuko naiz; nolana ere, Pruden eta Josefinarekin zerikusia duen garai eta herrialdeetara mugatu dut marko hau.

1. MIGRAZIOAREN IKUSPEGI OROKORRA

1.1. Migrazioaren zenbait kontzeptu

Migrazioa etengabe eman da hominidoen historian zehar. Izan ere, gure arbasoek migratu egin behar izan zuten espazio geografikoan barrena baldintza meteorologikoak zirela, jaki beharra zela, gerrak zirela eta abar. Bestalde, migrazioen joan-etorriek gero eta herrialde gehiagori eragin diote azken bi mendeetan; egun, ordea, kontinente guztietako pertsonak eta herrialdeek parte hartzen dute. Beraz, fenomeno globala izatera heldu da.

Euskal Herriari dagokionez, gure aurreko asko emigrante izan ziren mendeetan. XIX. gizaldian, aldiz, etorkinak jasotzen hasi ginen Espainiako zenbait lurraldetatik. Eta, hamarkadetan, bi fenomeno ezberdin gertatu ziren: aipatutako inmigrazioa, batetik, eta euskal migrazioa, bestetik –hemengo lurraldeen artean gertatutakoa eta Ameriketarakoa–.

Rodríguez Quiroga (datarik gabe) adituaren arabera, emigratzeko arrazoi ezberdinak daude eta, oro har, bi aztertzen ditu: gizarte mailako zioak eta gizabanakoarenak. Gizarte mailakoei dagokienez, zenbait motibo aztertu behar ditugu: sozialak, ekonomikoak, demografikoak, politikoak, kulturalak, erlijiosoak eta abar. Bestalde, gizabanakoak emigratzera bultzatzen dituen arrazoiak honakoak dira aitatu adituaren arabera: gosea, langabezia, diru-sarrera eskasak; norberaren autonomia, askatasun eta arrakasta-nahia; familiaren presioa eta gizartearena; norberaren herrian etorkizunerako itxaropen eskasa eta abar.

Arestian azaldukoaz gain, bi eratarik emigra daiteke: norbera bakarrik joanez edota taldean emigratuz. Lehenengoari dagokionez, gizabanakoak askotan bere kasa eraman behar du borroka, taldearen eta familiaren babesik gabe; era berean, harrerako gizartean inmigrante honek arrakasta bermatu gabe aritu beharko du lanean. Hori guztia dela eta, etorkinak bakardadea, malenkonia eta herrimina bizi dezake eta bere izaerak garrantzi handia izango du ezbeharrei aurre egiterakoan. Emigrazioa taldeka ematen denean, aldiz, erakunde-antolatzailearen babesak izan dezake emigranteak. Adibidez, gerra zibilaren ondorioz, Eusko Alderdi Jeltzaleak Venezuelara antolatu zituen bidaiak herrialde hartako gobernuak hala eskaturik. Honek asko lagundu zien hara emigratu behar izan zutenei.

Nolanahi ere, etorkinak herrikideen laguntza eduki dezake harrerako herrialdeetan: esaterako, Duglass (2003) soziologo amerikarraren arabera, Ipar Ameriketako euskaldunek elkarri lagundu ohi zioten artaldean jabe egin zitezkeen. Laguntza hau, ordea, areago iritsi zen eguneroko bizitzan, geroago ikusiko dugun bezala.

Mexiko dugu, bestalde, herrikideen arteko laguntzaren aitzindari: jada XVI. mendean euskaldunek bat egin zuten elkarri babesa emateko. Besteak beste, garrantzi itzela izan zuen Cofradía de Nuestra Señora de Aránzazu erakundeak euskaldunei laguntza ematerakoan. *Cofradía* hau desagertu ondoren, Asociación Vasca de San Ignacio de Loyola sortu zuten helburu berarekin. Azkenik, 1907 urtean Mexiko hirian euskal etxe bat sortu zuten; bere helburuak estatutuetakoa lehen artikuluan jasotzen dira:

Forman una sociedad cooperativa, que tiene por objeto continuar el propósito de la extinguida “Asociación Vasca de San Ignacio de Loyola”, y además:

a) Proporcionar a sus accionistas un local decoroso destinado a conferencias literarias y científicas, conciertos y demás reuniones que la sociedad celebrará; clases de idiomas, contabilidad u otras que organice, y a los juegos lícitos que establezca.

c) Estimular el amor al País Vasco y al idioma e historia vascos; y

d) Afianzar eficazmente las relaciones entre vascos.

Aldi berean, askotan, migrazio-mugimendua ez da amaitzen etorkina harrerako herrialdera iristean, eta, egoera horretan, erabaki ezberdinak har ditzake emigranteak: harrerako herrialdean geratzea, beste herrialde batera joatea, familia elkartzea, jatorrizko herriarekin harremanak haustea, norberaren herrira itzultzea eta abar.

Guztiarekin ere, ezinbestekoa da emakumeei buruzko aipamena egitea migrazioa bere osotasunean uler dezagun. Emakumezkoek, askotan, beraien senar eta gurasoekin elkartzeko emigratu zuten; egun, ordea, gero eta gehiago irteten dira bakarrik atzerrira eta familiaren sostengu bihurtu. Honen ondorioz, emakumeen autonomia areagotzen ari da eta beren komunitateetan eragin handiagoa lortzen ari dira (fenomeno honi *empoderamiento* deritza gaztelerak). Bestela, egun, senarrek emigratu eta andreak sorterrian geratzen direnean, hauek gero eta ardua ekonomiko eta familiar handiagoak hartzen ari dira. Zentzu honetan ikus dezagun Mexikoko adibide bat, Guadalupe Vallejo Mora (2005) adituak ematen diguna *Empodera a las mujeres: la migración de hijos y esposo* lanean: “Para las mujeres de la Charca, municipio de Atoyac, Veracruz, la experiencia migratoria a los Estados Unidos del esposo e hijos se abre como una posibilidad de empoderamiento, autovaloración, construcción de la seguridad y autoestima.” Sorterrian geratzen diren emakumeen inguruko zertzelada bukatzeko, ikus dezagun zer dioten Nazio Batuen Erakundearen (NBE) (2006, 16) txosten batek, *Encuesta Mundial acerca del Papel de la Mujer en el Desarrollo: Mujeres y Migración Internacional*: “Son heroínas no reconocidas en la más amplia agenda de migración de las familias”. Hemen ere, ikusezintasuna dago, emakumezkoekin zerikusiria duten arlo askotan bezala.

Bukatzeko, gizarte-integrazioari buruzko aipamen bat egin nahi dut: zer jarrera dute etorkinek eta harrerako emakume eta gizasemeek migrazio-fenomenoaren aurrean? Izan ere, etorkinek eta harrerako gizarteek estrategia ezberdinak erabiltzen dituzte beren harremanetan: asimilazioa, akulturalizazioa, kultur fusioa eta abar. Bide batez, aipatu beharrekoa da hizkuntzek daukaten garrantzia integrazio-prozesuan, harrerako herrialdeko mintzaira jakitea ezinbestekoa baita etorkinak eta beren ondorengoak abegiko gizartean erabat integra daitezkeen.

1.2. Euskal migrazioa XIX. eta XX. mendearen hasieran

Prudenek Mexikora, Estatu Batuetara eta Venezuelara emigratu zuen XX. mendean. Hori dela eta, herrialde hauetara mugatuko ditut zertzelada historikoak. Garaiari dagokionez, XIX. mendea ere aipatuko dut, ezinbestekoa baita gizaldi honen aipua gure emigrazio-fenomenoa hobeto uler dezagun.

Arestian esan bezala, Euskal Herria emigrante izan da mendeetan. XIX. gizaldian, aldiz, fenomeno hau areagotu egin zen eta nekazal eremuetatik jende ugari emigratu zuen Ameriketara hemengo bizi-baldintza latzetatik ihesi. Fenomeno honen arrazoiak honakoak izan ziren: bertako ekonomia tradizionalaren porrota, maiorazkoaren edo premutasunaren legedi berriak, Karlistaden ondorioak, derrigorrezko soldadutza edo soldadugoa, emigrazioaren negozioa eta abar. Aldi berean, Ameriketako herrialdeek etortze-politikak bultzatu zituzten beren lurraldeak jendezta zitezen.

Bigarren Karlistada amaitu ondoren, 1880tik aurrera, Bizkaiak eta Gipuzkoak industrializazio prozesu garrantzitsuari ekin zioten. Ondorioz, meategietan eta siderurgian lanpostu asko sortu ziren eta eskualde horietara herritar ugari emigratu zuten: euskaldunak zein Espainiako hainbait lurraldetakoak. Etorkin hauek, bestalde, baliabiderik gabekoak edo gutxikoak izan ziren batez ere. Pertsona-mugimendu horien ondorioz, gutxitu egin zen Ameriketarako emigrazioa; hala ere, oraingoan merkatariak, industriariak eta profesio liberaletakoak izan ziren Atlantikoaren bestaldera joandakoak. Edozein modutan ere, azpimarratzekoa da euskal emigrazioa oso eskasa zela Gerra Zibilaren bezperan, aipatutako emigrazioaren aldaketa sozio-profesionalaren eraginez.

Bestalde, legez kanpoko emigrazioak izan zuen bere garrantzia. Adibidez, Iparraldeko euskaldun anitzek klandestinoki emigratu zuen Argentinara soldadugoa ez egitearren. Datuei dagokienez, Fernández de Pinedok dio (1993, 137) "que casi de cada cuatro emigrantes reales uno lo hacía clandestinamente".

Eta zein izan zen emigrazio-fenomenoa Lekeition, Pruden Ituarte eta Josefa Chopitearen herrian? Fernández de Pinedok (1993) 1908 urteko herriko datuak ematen ditu, –gure aitona Mexikora joan baino bi urte lehenagokoak, alegia–: denetara 57 lekeitiarrek emigratu zuten Ameriketara –hogeita hamabost gizonezko, hamabost emakumezko eta zazpi haur–. Horietatik, hogeita hamalau Kaliforniara joan ziren, –hogeita hiru gizonezko, bederatzi emakumezko eta bi haur–. Lanbideari dagokionez, arrantzaleak izan ziren gehien irten zirenak –hamabost– eta hauetatik hamahiruk Kaliforniara emigratu zuten.

Eta Kalifornia aipatu denez, txikia izan zen lurralde haietara joandako euskaldunen kopurua, 50.000tik 100.000ra bitartean, gehienak prestakuntza gutxikoak, Duglassek (2003) dioenez. Hori bai, XIX. mendearen erdialderako dokumentatua dago euskal artzainen presentzia; hurrengo hamarkadetan, soziologo horren arabera, beste estatu batzuetara ere emigratu omen zuten: Nevadara, Oregonera, Idahora eta abarretara. Harremani dagokienez, euskaldunek beren artekoak izan zituzten hartu-emanak, batez ere gehienak artzantzan aritu zirelako.

1.3. Sorterrirako itzulera

Ruíz de Azuaren arabera (1992), ezer gutxi ezagutzen da euskal emigranteen itzuleraz: zenbat itzuli ziren, zergatik erabaki zuten hori egitea, zertan aritu ziren herriratu ondoren, nola berregokitu ziren Ameriketako esperientziaren ondoren. Nabaria da herriminak, arrakastak eta porrotak zerikusia izan zutela itzultzeko erabakiarekin.

Ameriketako esperientzia penagarriak direla eta, aipagarria da euskaldunek elkarteak antolatu zituztela porrot egin zutenei laguntzeko. Ildo honetan, adibide bat aipatuko dut: 1907an Boise eta Idahoko euskaldunek elkarre bat sortu zuten burutik eginda zeuden euskaldunak beraien herrira itzul zitezten. Ez dugu, ordea, adibide bakarra.

Hemen bukatu dira migrazioari buruzko zertzelada teoriko eta historikoak. Jarraian, Pruden Ituarteren migrazioarekin zerikusia duten zenbait gertakari kontatuko ditut, betiere Josefa Chopiteari buruzko aipamena ahaztu gabe.

2. ZER ZELA-ETA EMIGRATU ZUEN PRUDENEK?

Prudencio Ituarte Lekeitioko familia behartsu batean jaio zen 1.883an. Hilabete gutxi zituela, bere aita hil egin zen eta ama gaixorik zegoenez, ezin izan zuen haurtxoa hazi. Hori zela-eta, Nabarniz herriko baserri batera eraman zuten haztera. Aitonak kontatzen zuenez, ama eta amuma bisitan joaten zitzaizkionean, askotan, zulo batean (*en un bujero*) aurkitzen zuten mukiz beteta. Denboraren poderioz, bere ama berriro ezkondu eta seme-alaba gehiago izan zituen.

Zazpi urte zituela, eskolan hasi zen. Beti gogoratzen zuen bere bigarren maisua ez zela euskalduna eta hasieran nekeza egin zitzaizela klaseei jarraitzea. Garai hartan, leitzen eta izkiriitzen ikasi zuen eta baita aritmetikako lau erregelak ere; gaztelaniaz, ostera, ezer gutxi egiten zuen berba. Adiuntza hartan, eta aitaordea nahiko makal zegoenez, Prudenek, hamar urte zituela, bere senideak zaindu behar izan zituen amak behar egiten zuen bitartean. Gainera, beste lan batzuk egin zituen etxean laguntzeko; ondorioz, gutxitan joaten zen eskolara. Azkenik, eskolatik atera zuten.

Badago pasadizo bat gure *lekittarraren* izatea azaltzen diguna: oraindik hamar urterekin, behin, goizeko hiruretan, isil-isilik, osaba baten txalupan ezkutatu zen arrantzaleak ontziratu baino lehen. Itsaso zabalean zirela atera omen zen bere ezkutalekutik; osabak ikusi ahala, nonbait, “bota itsasora” esan zien arrantzaleei; hauek, ordea, mutikoaren alde jarri eta halaxe lortu omen zuen Prudenek nahi zuena: “hamar urteaz arrainetan hastea”. Handik aurrera txo izan zen. Aitzitik, ez da izango ontzi batean ezkutatuko den azkeneko aldia. Bestalde, anekdota honek azaltzen digu nolakoa zen Prudenen izaera: mutiko ausarta, oldarkorra bere bizitzari aurre egiteko.

Batzuetan, Ituarrek kontatzen zuen zein izan zen gose handien pasa zuen eguna. Hamabost bat urte zituela, unekada baterako Donostiara joan ziren arrantzura. Bera ez zen itsasora joaten beste eginkizun batzuk zituelako. Egun batean, ordea, bi arrantzale gaixotu eta patrioiak adierazi zion itsasora joan behar zuela. Ogi puska bat hartu zuen mutilak eta hamazazpi orduz aritu ziren arraunean eta arrantzuan; nola ez, goseak akabatzen zegoen gure protagonista. Hori ikusita, arrantzale batek beste bati esan omen zion Prudeni ogi zati bat eskaintzeko; besteak, ostera, ezetz: “han aurrian, Donostian, ogia dauko”.

Nolanahi ere, urte-sasoi batean, arrantzaleek eta familiek latzak pasatzen zituzten. Hain zuzen, hegaluze eta bisiguaren arrantzu aldia amaitzen zenean, barkuak ontziolara konpontzera eramaten zituzten. Eta itsasoan hasteko zain zeuden bitartean, urteko sasoirik gorriena pairatzen zuten: *esunia*.

Arrantzuan aritzeaz gain, marinel ere ontziratu zen Pruden, Bilbotik Gijónera burdina eraman eta handik ikatza ekartzen zuen itsasontzi batean. Diru gutxi irabazten omen zuten, gainera. Geroago, eta hogeitaz urterekin, lemazain joan zen Compañía Naviera Sota y Aznarrera, baina ordurako andregaija zuen eta nahiago izan zuen Lekeitiora itzuli eta arrantzuan jarraitu. Hala ere, izan zuen beste arrazoirik konpainia hori uzteko: Lekeition, arrantzura irten aurretik, beti otoi egiten zuten arrantzaleek; itsasontzi handi

horretan, aldiz, marinel asko ahozikinak omen ziren, eta berak ezin zuen hori eraman. Hiru arrazoi horiek –etorkizuneko familia, fedea eta zuzen hitz egitea– izan ziren bere bizitzaren ezaugarri.

Hogeita bat urte zituela, 1904an, Pruden eta Josefa Chopitea ezkondu egin ziren. Ospakizuna xumea izan zuten: txokolatea, pastak eta basokada bat esne besterik ez zuten hartu. Ondoren, eztei-bidaiara joan ziren: Loiolara eta, jarraian, Donostiara; hiri honetan lau egun eman zituzten eta, atzera, Lekeitiora itzuli ziren. Hurrengo urtean, ez omen zuten diru asko irabazi arrantzu aldian. Lehenengo alaba ere jaio zen eta amuma Josefa berriro ere umedun zegoen. Gauzak horrela, Prudenek bere aitagarrebari batel txiki bat eskatu zion arrantzura joan ahal izateko. Eta ondoren gertatutakoak izan zuten zerikusia aitonak itsasoa utzi eta beste bide batetik jotzearekin.

Antxoatara gauez joan behar zuten batean, berba egin zion Josefak:

– Soyas lotara ; bitartian, batela neuk atonduko dot.

Josefak ontzia uretara jaitsi zuen, bada, eta lanabesak prestatu zituen: trainak, arraunak, trinketa, arrankila eta abar.

Hiru tripulatzaille ziren, Pruden eta bi mutiko. Arratsean itsasoa bare zegoela irten ziren. Itsas zabalean haizea altxa zuenez, arraun egiteari utzi eta trinketaz nabigatzea erabaki zuen. Non zegoen, ordea, lema? Lekeition! “Jainkuak gurari dauena izan deitzela” eta aurrera jo zuten. Ilunkeran, trainak bota zituzten; oster, ez zuten ezer harrapatu eta Prudenek erabaki zuen itsasoan gehiago barneratzea. Trainak berriro zabaldu zituzten baina han ere ez zegoen arrainik, eta, bat-batean, galerna altxa zuen: tangartaren bila hasi ziren, baina hori ere ahaztu, nonbait, emazteari batelean uztea. Lemarik ez eta ura xukatzeko tangartarik gabe, “atesuan gagos, mutillak” esan zien bi mutikoei; hauek txokoloekin hasi ziren ura ateratzen eta aitona trinketa eta arraun batez ontzia gobernatzen. Ez daukat esaterik zenbat orduz jardun zuten horrela, baina Santa Katalinako itsasargia han aurrean zutenean, olatu handiagoak sortu eta haize kolpe batek trinketa eraman zien. Ontzia jitoan eta laguntzarik gabe, haurrak negar batean, Antiguako Amari otoi egiten hasi omen zitzaizkion... Handik hamar minutura baretu egin zen itsasoa.

Bitartean, beraiena ez beste ontzi guztiak itzuliak ziren Lekeitiora eta galdutzat emanak bi umeak eta Ituarte:

–Josefa, Pruden esta itzuli da esta itzuliko– esan zion gure amumaren amak berak kontatzen zuen legez.

Egunsentian, ordea, blai baina hirurak bizirik zirela, Mutrikuko baporetxo bat agertu zen: “salbasiñoa”. Atoian eraman zituzten herri hartara; taberna batean arropa lehorra eta jaten eman eta, berriz atoian, Lekeitiora ekarri omen zituzten.

Ituarteren bizitzaren garai honi amaiera emateko, kontatuko dut gertakari larri horren ondorioz, hamar egunez gaixorik egon zela ohean eta ez zela berriro arrantzura itzuli. Orduan erabaki zuen Ameriketara emigratzea: amuma Josefak lehengusina bat zeukan Mexikon eta honen senarra, Antonio Ajunita, ontzi-kapitaina zen Mazatlan herrian. Abisua eman zioten lehengusinari eta Ajunitak baieztatu erantzuna eman, Prudenek izango zuela beharra eta joateko bertara.

3. PRUDENEN LEHEN EMIGRAZIOA ETA JOSEFAREN JARRERA

1905eko uztailen, 23 urte zituela, Pruden Ameriketara abiatu zen. Ez zekien ia gazteleraz eta itsasaldian beste euskaldun batekin elkartu zen, euskaraz soilik hitz egiten zuena. Elkarri lagundu zioten bidaian zehar norbera bere jomugara iritsi arte. Euskaldunen arteko elkartasun hori maiz ematen zen Atlantikoaz bestaldean, jarraian ikusiko dugun bezala. Bestalde, eta hizkuntzari dagokionez, Lekeitiarrak Mexikon ikasi zuen gaztelania; horrek ulertarazi zidan zer zela-eta batzuetan esaten zidan “no me chingues” edota “Jalisco no te rajes” elkarrekin kartetan ari ginela.

Une honetan etentxo bat egin eta azalduko dut zein zen euskaldunen jarrera XX. mendearen hasieran herrialde hartan. Rodríguez Iglesiasek *–La colonia vascongada en México*, (Garritz Ruiz, 2002, 26)– honakoa baieztatzen du:

“La Colonia Euzkalduna en su mayoría está compuesta por jóvenes en cuya mente no anida otro deseo que el trabajar y ahorrar mucho para luego holgarse, cerca del nido sacrosanto de su infancia, compartiendo la alegría con los suyos y descargando de las rudas fatigas y labores penosas mediante las cuales logró labrarse bueno o mediano porvenir”.

Jakingo dugu zer jarrera izan zuen gure protagonistak herri aztekan. Baina narrazioaren harira itzuliz, lekeitiarra Veracruzera iritsi eta bakarrik abiatu zen Salinacruzera trenez, Ozeano Barera, Antonio Ajunita kapitainarengana; baina, bidean gaixotu egin zen. Herri hartan, kapitainaren zain zegoela, izan zuen lanerako lehenengo aukera: indio eta txinatar batzuk ikusi zituen loro batzuekin arrantzuan. Nonbait, ez zuten ia arrainik harrapatzen eta berak Lekeitiotik ekarritako *aparejuak* atera eta dozenaka arrain arrantzatu zituen. Euskaldun baten tabernara lasterka joan eta hark sei peso ordaindu zizkion arrainen truke. Hurrengo egunean, berriro ere arrantzura joan eta beste horrenbeste irabazi zuen. Hura ikusita, tabernariak proposatu zion Ajunita kapitaina utzi eta bere kasa arrantzuan hastea: harrapatutakoa berak salduko zuela eta *plata* dezente irabaziko zutela. Baina, kapitainarekin konpromisoa zuenez, Prudenek uko egin zion eskaintzari.

Handik laster, beste eskaintza bat izan zuen kontramaisu lanetan hasteko, baina Ajunitaren anaia batek agindua zeukan Pruden berarekin Mazatlanera eramateko eta, ereti hau galduta, aipatu herrira joan ziren biak. Damutu egin zitzaion, aldiz, aurreneko bi lanei heldu ez izana, Mazatlanen espero zuena oker atera baizitzaion. Ituartek kontatzen zuen garai hartan oraindik *mundología*¹ gutxi zuela, hau da, eskarmentua eta abilezia norberak bere bizitza gobernatzeko.

Heldu ziren Mazatlanera. Lehenengo hilabetea, ordea, lanik gabe igaro zuen; ondorioz, hotelean gerotan zegoen eta, hori gutxi balitz bezala, gaixotu egin zen. Handik hilabetera, soinkari lanari ekin zion ontzi batean; orduan ere eritu egin zen eta ospitaleratu egin zuten: inoiz baino gaixoago, hotelean berriro zorretan, gazteleraz ez zekiela eta lur jota, galdu-gordean ikusi zuen bere burua. Azkenik, egonaldia Beneficencia Españolak ordaindu zion, Pruden elkarte horretako bazkide baitzen. Osatu zenerako, aldiz, gazteleraz hobeto moldatzen zen eta ausartagoa ikusten zuen bere burua. Gainera, hiru lagun euskaldun eginak zituen. Bestalde, non ziren amumaren lehengusina eta Antonio Ajunita? Bada, ez dira aipatu ere egiten aitonaren oroitzenetan, ezta zergatik ez zioten lanik eskaini Pruden Mazatlanera iritsi zenean.

¹ Aitonak zioen bezala, “mundología es la siensia que no se compra en las boticas ni se aprende en la Universidad”

Ospitaletik irten zenean, Australiara joateko aukera izan zuten lau euskadunek; baina kontratua izenpetzerakoan, beste batzuk aurreratu egin zitzaizkiela jakin zuten; lanik eta sosik gabe atzera, hobera egiteko itxaropena galduta ikusi zuten beren burua.

Handik gutxira, berriz, euskaldun itxurak lana lortzeko balio izan zion. Kapitain euskaldun zahar batek kalean ikusi eta hots egin zion: “Hi nungua haiz?”. “Neu, lekitarra”. Itsasoko arropaz jantzita eta euskal matrikularekin –hala deitzen baitzion aitonak hemengo txapelari– ez zuen zalantzarik izan kapitain hark. “Lanik nahi badek, hator nire ontzi bat zaintzera”. Egunekeo peso bat kobratzen hasi zen, lau lagun euskaldunek ozta-ozta jan zezaten adina diru. Beste behin, presoak irla batera eramateko eskaintza izan zuen. Uhartearen izena Sufrimientos omen zen eta, izenak zioen bezala, oso gaizki bizi omen ziren bertan, preso batek esan zion legez: “Señor, aquí nos traen a morir, mire qué agua bebemos”.

Bidaia horiek egin ondoren, berriz kapitainaren ontzia zaintzera itzuli zen; bitartean, bere lagunak lanik gabe jarraitzen zuten. Egun batean, itsasontzi handi bat etorri zen Mazatlanera jarraian Acapulcora zihoana. Lagun euskaldun bat eta biak barkura behar bila hurbildu eta pilotuarekin berba egin ondoren, ofizialak adierazi zien bertan bazegoela lana. Herrira itzuli ondoren, Pruden kapitainarengana joan zen adio esatera eta ordaindu behar ziona jasotzera; eguerdian, lagunak bazkaltzera joan ziren eta, arratsaldean, ontzira itzuli ziren bi adiskideak. Han, ordea, beste ezusteko bat izan zuten: goizean ezagutu zuten ofizialak adierazi zien ez zituztela hartuko eta itsasontzitik irten zitezela. Oraingoan, ordea, gure lekeitiarra ez da musu-huts geratuko, erabakita baitauka Matazanen ez jarraitzea eta Estatu Batuetara emigratzea. Lagunari adierazten dio nahi duena egin dezala baina bera badoala, ezkutuan. “Hamen hasten da aldatz handia” pentsatu omen zuen. Lagunak, ostera, lehorreratzea erabaki zuen.

Esandako itsasontzia ingelesa zen, zama eta bidaiariak eramaten zituena. Eskifaia osatzen zutenak nagusiki bi nazionalitatetakoak omen ziren: ofizialak, ingelesak eta gainontzakoak, txinatarak. Bada, bertan ezkutatu, Antiguako Amari otoitz egin eta loak hartu zuen.

Goizaldean kubiartara atera zenean, ofizialek berehala ikusi eta galdezka hasi zitzaizkion zergatik ontziratu zen baimenik gabe. Lekeitiarrak, ordea, argi utzi zien goizean pilotuak kontratatu zuela eta arratsaldean ezezkoarekin etorri zitzaioala; aldi berean, ofizial honek ezetz erantzun zuen, berak ez ziola baimenik eman. Batek baietz eta besteak ezetz, azkenean, adierazi zioten oso delitu grabea zela ezkutuan itsasontziratzea, sei urteko kartzelarekin zigortzen baitzen. Ezkutuan ontziratzeagatik, txikitan, Lekeition, osabak uretara bota nahi izan zuen eta Mexikon espetxera bidaliko zuten. Eta hala, hurrengo portura iritsi bitartean, beharrea jarri zuten txinatar batzuekin batera. Azkenik, heldu ziren San Blasera eta, lehorreratu ordez, lanean mantendu zuten egun osoan zamaketari indiar talde batekin, bero handia egiten zuen soto batean.

Ontzia kargatu ondoren, aingurak jaso eta Acapulcorantz abiatu ziren. Itsas zabalean, lehenengo ofizialak deitu zion, “sigorraren berri emoteko” pentsatu zuen bere golkorako. Baina itzultzaileak laster eman zion erabakia: “Oye, vasco, has caído en gracia del primer oficial y te quiere poner de contra maestre”. Aitonak, ostera, bere asmoa adierazi zien: Kaliforniara joan nahi zuela kosta ahala kosta.

Kostatu egin zitzaion, bai, hara iristea, sosik ez zeukan eta. Baina bazituen zenbait abantaila: osasun ona, optimismoa, mahoizko jantzia, euskal matrikula –txapela, alegia– eta mundologia.

Azkenik, Acapulcoko badiara heldu ziren eta bertan ainguratu zuten ontzia. Lehorreratzeko txalupaz joan beharra zegoen, baina Prudenek ordaintzeko pesorik ez zuenez, portura nola *arrano* iritsi hasi zen pentsatzen. Txalupan sartu zen ordaindu gabe eta hondartzatik gertu zegoela, *dzanga*, uretara murgil egin eta igerian iritsi zen lehorrera. Txalupariak ere heldu ziren kaira eta lekeitiarraren atzetik abiatu ziren korrika; Prudenek, arineketan, kale artean saihestu zituenean, ordea, aguazil batekin topo egin zuen. Janzkeragatik konturatu zen gizon hura aitona atzerritarra zela: geldiarazi zuen eta “a la prevención” agindu zion. Harako bidean, ordea, ontzi ingeleseko ofizial batzuk ikusi zituzten eta, haien laguntzari esker, aguazilak libre utzi zuen Pruden. Honek non lo egin ez zuenez, ingelesek euskaldun batengana eraman zuten.

Ordurako sei hilabete igaro ziren sorterria utzi zuen ezkeroztik eta ez zen makala izan igarotako guztia. Gabonak ziren eta, berriro ere, lanik gabe zegoen, urruti familiarengandik eta *Euzkaditik*. Gainera, Gabon-gaua bakarrik igaro behar izan zuen, purua eta tequila pixka bat erosteko pesorik gabe.

Laster, ordea, itsasontzi bat heldu zen San Frantziskora zihoana eta bertaratu egin zen. Nola ez, ontzian berriro ere euskaldun bat topatu zuen, jaten eta dirua eman ziona; eta Ituartek Kaliforniara ezkutuan joateko asmoa adierazi zionean, besteak ez zion halakorik gomendatu, Kalifornian gai horrekin oso zorrotzak baitziren. Azkenik, nahi zuen itsasontzia topatu zuen: “Corinto”, Guatelama eta Panama bidea egiten zuen; eta, Acapulcora itzuli ondoren, San Frantziskora joan ohi zen. Bertaratu eta kontramaisuaz galdetu zuen; honek euskalduna al zen itaundu zion eta berak baietz erantzun: onartu egin zuen ofizialak zama-lanetan aritzeko. Itsasaldiak, Acapulco-Panama-Acapulco, 42 egun irauten zuen. Bidean, marinel lanetan hastea lortu ondoren, gehiago irabazten hasi zen. Acapulcora itzuli zirenean, kaian bere Mazatlaneko hiru lagunak aurkitu zituen. Hau poza! Etorrinaren bakardadean, norberaren herrialdekoak Ameriketara, familiaren ordezkioak izan zitezkeenak; hori nabarmena da euskaldunen artean, ikusten ari garen legez. Honen harira, esan dezaket Venezuelara ohiko kontua zela, familiakoa izan gabe, *tía* eta *tío* deitzea gertuko zenbait helduri. Emigranteen *familiamina* ote zen? Eta Acapulcora itzulita, Prudenek lagunek “Nolatan lortu dezu postu hori?” galdetu eta berak: “biarras da bisia arriskuan ipiñis”.

Azkenean, San Frantziskora abiatu eta iritsi ziren, Jainkoari eskerrak, aitonak nahi zuen bezala. Ordurako, ordea, bere itxura ez zen euskaldun batena: azal beltzarana eta Emiliano Zapatarena baino *mostatxo* handiagoa aurpegian.

Lehorreratu egin ziren adiskide mexikar bat eta biak eta San Frantzisko ezagutzera joan ziren; dena handia zen beretzat, portu modernoa itsasontziz betea, inoiz ikusi gabeko transatlantikoak eta hara!, Lekeitioko kantoien antza zuten kaleak: gora eta behera igaro zuten goiza jendeari, etxeei, erakusleihoei, tabernei eta jatetxeei begira.

Halako batean, Hotel Español Lugea Hermanos ikusi dute. Sartu dira eta tabernariak galdegin dio Prudeni: “Perdone, pero ¿usted es español?” Eta berak, “sí, vasco-español”. “Ni ere bai, Elizondokoa”. “Ba, neu, lekittarra”. “Gure sukaldaria lekeitiarra da, ba... Modesto de Echevarría” erantzun dio tabernariak. Bere haurtzaroko lagun bat zen, kale berekoa, herriko kantoiak sortzen diren Aranegi kalekoa. Etorri da Modesto eta ez du Pruden ezagutu: “Nor sara seu?” itaundu dio, eta aitonak ihardetsi “Seu Judas apostolua isan siñian da neu San Pelipe.” Orduan konturatu zen nor zen bibote handiko gizon hura. Izan zuten zer itaundu eta zer kontatua! Modestok proposatu zion bertan geratzea, San Frantziskon lana bazegoela eta gehiago irabaziko zuela; baina gure aitonak adierazi zion itsasontziko ofizialekin konpromisoa zuela, ondo portatu baitziren berarekin; gainera, lagun bat zain zuela Acapulcon eta hitza bete behar zuela.

Horregatik, beste joan-etorri bat egingo zuela eta, bitartean, mesedez, beharra bilatzeko.

Azken itsasaldi hartan ezagunak zituen portuak pasa zituen: harakoan, San Blas, Mazatlan, Acapulco, Corinto eta Guatemala eta, ostera, Acapulco; berrogeita lau eguneko bidaia, garizuman. Jarraian, gerorengo joan-etorria burutu zuen, hiru hilabete iraun zuena: Guatemala eta Panama, eta itzulera Guatemala, Corinto, Acapulco, Mazatlan, San Blas eta, azkena emateko, San Frantzisko. Heldutakoan, kontua eskatu eta agur egin zien inoiz berriro ikusiko ez zituen herriei.

Handik aurrera, Kalifornian jarraitu zuen bere Amerika bilatzen. Itsasoa utzi eta Lekeitioko Modesto lagunak jakinarazi zion kobre-meategi batean peoiak behar zituztela; lan-baldintzak honakoak ziren: bi dolar eguneko eta ostalua barrakoietan, mantenua barne. Lanean hasi zen eta, jakina, langileen artean, euskaldunak topatu zituen. Ez zioten, ordea, galdetu nongoa zen, ezta berak esan ere; sasoi hartan ez zuen euskaldun antzik ematen: beltzaran-beltzarana, bere bibote handi harekin, mexikeraz hizketan eta herri hartako zenbait ohitura hartuta. Egun batean, ostera, meategian lanean ari zela, langilezain euskaldun batek galdetu zion euskal meatzari bati “zelan portaten dau aiudantiau” eta “konforme gaude” erantzun bestiak. Orduan, Prudenek euskaraz berba egin zien; euskalduna zela jakitean, esan zioten: “euskaldunak gutxi gara baña gaudenak halako txabola moduko batian bizi gara”. Berriro ere euskaldunen arteko laguntasuna: barrakoiak utzi eta herrikideekin bizitzen jarri zen.

Meategian lanean ari zirela, jakin zuten lan hura oso kaltegarria zela osasunerako. Berak ere antz emana zion horri eta euskaldun batzuek Nevadara joatea erabakia zutenez, Meategian kontua eskatu eta Langa anaiak agurtzera hurbildu ondoren, euskaldun koadrila harekin abiatu zen lekeitiarra. Nevadan planta elektrikoak egiteko langileak behar omen zituzten eta meategian beste diru irabazten zen.

Trenez abiatu ziren. Bidean, Los Baños herrian, Nevadako trenaren zain zeudela, Prudenek arrantxo asko zegoela ikusi zuen, ganadua eta gari-, garagar- eta alpapa-soro ederrak. Gogoko zuela ikusita, lagunei esan zien han geldituko zela, betidanik gurako izan zuela mendiko askatasuna, libre eta indibidualista izatea. Beraz, bazterrean utzi lehenagoko bizimodua eta berri bati heldu zion.

Egun hartan, Pruden taberna batean eserita zegoela, gizon bat hurbildu eta gaztelaniaz galdetu zion ea lan egin nahi al zuen gari-uztaroan. Prudenek baietz erantzun eta hark ea eskarmenturik al zeukan zaldiekin, eta *lekettarrak* baiezkoa, bazuela eskarmentua. Halandaze, arrantxorantz abiatu ziren biak. Bidean, gizon hura hizketan ari zitzaion bitartean, lekeitiarra zaldien uhaleriei begira joan zen, ea nola *arrano* zituzten lotuta, biharamunean berak ipini ahal izateko.

Hurrengo goizean, langileak arnesak armatzen hasi zirenean, nabarmendu zen Prudenek ez zekiela zer egin. Langilezaina eta ugazabak barrez lehertzen aritu ziren, baina Ituartek jarraitu egin zuen bere ahaleginetan. Gogoratu zioten bezperan esan ziena, alegia, bazekiela arnesak armatzen; eta lekittarrak baietz, jakin bazekiela, baina bere herrian beste arnes mota batzuk erabiltzen zituztela. Azkenik, lagundu egin zioten zaldiak prestatzen eta galsorora joan ziren; bazuen, behintzat, beharra uztaldia amaitu arte. Lanaldia bukatu zenean, langile guztiak egotzi zituzten langilezaina eta Pruden izan ezik. Orduan, nagusiek zaldiak zaintzen jarri zuten. Negua iritsi zenean, eta arrantxoko lan gogorrenak amaitu ostean, adierazi zioten handik aurrera sukaldean arituko zela. Prudenek ez zuen sekulan halakorik egin eta hala jakinarazi zien: “I not now to cook”; haiek, berriz, zera erantzun zioten: “It doesn’t matter, already you will learn”. Graduak irabazten ari zen arrantxoko jabeen aurrean eta irlandarrak zirenez,

bera bezalako jainkozale katolikoak, beraien begikoa egin zitzaien. Alabaina, “orori kausitzea, ostea, lan da.”

Sentimendurik okerrenea bekaizkeria: arrantxoko nagusiek Prudeni ematen zioten tratua zela-eta, langilezaina jeloskor zegoen eta akatsak bilatzen hasi zitzaion lekeitiarrari. Behin, Ituartek jatorduan bezperako ogia jarri zienez, langilezaina gaizki esaka hasi zitzaion ugazaben aurrean. Prudenek erantzun zion makina bat aldiz jana izango zuela zortzi eguneko ogia bere sorterrian, Portugalen. Sesioan ari zirela, aitona haserre –gazte eta odolberoa garai hartan–, labana eskuan joan zen portugaldarraren atzetik eta hau lasterka abiatu zen. Biharamunean, nagusiek maleta egiteko agindua eman zioten Prudeni.

Aurkitu zuen lana beste arrantxo batean eta, handik egun batzuetara, aurreko arrantxoko jabeak azaldu zitzaizkion eta eskatu zioten beraien etxaldera itzultzeko; berak, aldiz, ezetz, ez zutela sekula inondik bota eta, nonbaitetik bidaliz gero, ez zela itzuliko nahiz eta gehiago irabazi; eta, gainera, ez zekiela zer egingo zuen portugaldarrarekin. Nagusiek erantzun zioten hori ez zela arazo, portugaldarra bidaliko zutela; Ituartek, ordea, ez zuen kontzientziako har hori eduki nahi, beragatik inor kale gorrira bidali izanarena, alegia.

Bitartean nola bizi ziren Josefa eta beren bi alabak? Familia aurrera atera behar eta Josefa lanean hasi zen Bilboko Iruñuela familian, inude. Iruñuelatarrak Echeverria lantegiaren jabeak ziren. Bitartean, alaba Lucre Lekeition bizi zen bere amumarekin eta Carmen baserri batean; mantenua bere aitona-amonek ordaindu ohi zuten. Eta bururatu al zitzaion Prudeni bere emaztea eta bi alabak Ameriketara ekartzea? Bai, eta hala eskatu zion Josefari; andreak, ordea, ezetz erantzun zion, bera ez zela Bilbotik mugituko. Nola uler daiteke Josefaren erantzuna? Bada, bera ezagututa. Zentzu honetan, bere alaba Mirenek honela definituko du ama: oso etxezalea, amakoa, kementsua, etxean agintzen zekiena eta autoestimu handikoa. Lekeition erabiltzen den esaera zahar batek dioen bezala, “emakume maratza etxerako zorki ona”.

Artzain ere izan zen gure arrantzalea, baina ez dut datu zehatzik bildu. Hautzarotik gogoratzen dudana zera da, neguan behintzat, aritu zela ardiak zaintzen. Eta batzuetan, bisutsa zela-eta, hobe izaten zutela kanpoan lo egin, olana eta mantez bilduta, txabolan baino. Ezin dut esan, ordea, zein herritan izan zen eta zenbat iraun zuen lan horretan. Lapurren beldur edo utzi omen zion artzaintzari, nire oroimenak huts egiten ez badit, behintzat.

Artzaintza aipatu dudanez, zein ote zen gizon hauen bizimodua? Ez zen lanbide xamurra izango, inondik ere: zenbait hilabetetan bakarrik bizi beharrean izaten ziren eta artaldeak lur-eremu zabal batean zaindu behar izaten zituzten; arriskuak ere handiak ziren basapiztietan eta neguko bisutsei aurre egin behar baitzitzaien; eta, gainera, osasun arazoak gertatzen ziren. Aldi berean, artzain asko ia erabateko isolamendu sozialean bizi ziren eta beren lanak ez zien aukerarik ematen familia-bizitza egiteko. Horregatik, zenbaitek burutik eginda bukatzen zuen: *crazy Basco shepherd* deitzen zioten jota bukatzen zuen euskaldunari.

Baina gatozen Prudenen historiaren harira. Urteak aurrera zihoazen eta, behinola, jakin zuen bazegoela lana Sacramentoko ibaiko zama-ontzietan; abiatu eta bertan hasi zen beharrean. Ontzian batez ere beltzak zeuden, eta, besteak beste, euskaldun bat eta txiletar bat. Honek asko preziatzen zituen euskaldunak eta esaten zuen euren erara lanean utziz gero, euskaldunak hoberenak zirela beharrean.

Lehen ikusi dugun bezala, Prudeni odola berotu egiten zitzaion, ez liskar altxatzen zuelako, baizik eta, gaztaroan, bere haserrealdi batzuk izugarriak zirelako. Bitan,

bederen, ukaldika aritu zen beltz banarekin. Behin, zama-lanetan ari zirela, ontzi batean topo egin zuten beltz batek eta Prudenek: zakuak lurrera erori eta beltza garrasika hasi zitzaion, baita lotsa galdu ere lekeitiarrari. Honek *black* erantzun zion. Gorputzez gorputzeko borrokari ekin zioten: beltzak aitonari hanka puskatu zion eta lekeitiarra, burdinazko haga batez, atzetik abiatu zitzaion; besteak egin zuen ihes.

Garai hartan ez zegoen Gizarte Segurantzarik ospitaleko gastuak ordaintzeko, eta Prudenek ez zeukan nahikoa diru hanka osa ziezaioten; zortea izan zuen, ordea, ontziko lehen ofizialak agiri bat prestatu baitzion eta lan-istripua izan zela adierazi. Agiri horrekin San Frantzizkoko ospitale batera eraman zuten; han, sendatu, igeltsua jarri eta bertan ingresatuta geratu zen. Baina ez zuen bisitarik izaten; egun batean, aldiz, Lugea anaietako bat, polizia zena, agertu zitzaion eta, handik aurrera, egunero izan zuen laguna bisitan. Ospitalean jarraitzen zuen aldameneko gaixoari hanka moztu ziotenean. Bitartean, bera ondo sentitzen ez eta aldamenekoari egin ziotena ikusi ondoren, Lugeari eskatu zion, mesedez, handik atera eta mediku batengana eramateko. Jainkoari eskerrak! Gangrenak jotzen hasia baitzen. Egunak eman zituen oso larri, baina, azkenean, osatu egin zen. Medikiak, ordea, esan zion handik aurrera ezingo zuela gehiagotan zama-lanetan aritu.

Beste behin, Sacramenton ostatu hartua zuen euskal hotel batean; bertan zeuden euskaldun batzuek izan zuten mendia garbitzeko kontrata baten berri. Heldu zioten lanari eta, beharrean ari zirela, konturatu ziren lan horrekin negozioa egiteko aukera zegoela. Kontrata guztia hartzeko dirua behar zuten eta, horretarako, Lugea anaiengana jo zuten finantziarioa lortzeko asmoz. Ondoren, mendi guztia garbitzeko eskaria egin zuten zegokion administrazioko sailean. Erantzuna, aldiz, ezezkoa izan zen eta nahi bazuten, "we paid you three dollars daily". A zer ezustekoa jakin zutenean negozioa ez zela beraientzat: "lebatz handi bat ihesi dotzagu amutik" esan zuen gure *lekittarrak*.

Iristen ez den eperik ez da, eta zein izan zen bere azkeneko lana Estatu Batuetan? Ondo ordaintzen zuten arrantxo batean: hiru hilabete eman zituen eta lanaldia amaitu ostean, Botxora itzultzea erabaki zuen. Itzulia, Marcos Echevarria lagunak eta biok egin zuten. Herrira bueltatzea zela eta, zer zioten Ameriketara geratu ziren euskal artzainek? Arestian, euskal emigranteen herriratzeari buruzko aipu bat egin dut. Egokia iruditu zait, ordea, kontaketa-une honetarako uztea Robert Laxalten *Dominique, artzain xiberotar bat Nevada*n nobelan agertzen dena. Bosgarren kapituluan, Laxaltek azaltzen dizkigu jaioterrira itzuli ez ziren euskal artzain batzuen zenbait gertaera, drama, tristezia. Bihotz ukan zuten Amerikak egitera etortzeko; aldiz, zenbat etorkin ez ziren sorterrira itzuli beraien nahiaren aurka? Nola bizi izan zuten drama hura?

Marcos eta Pruden Euskal Herrira itzuli aurretik, Lugea anaiak agurtu zituzten eta Texas estatuan dagoen Galweston portura abiatu ziren trenez, portu hartatik itzuli behar baitzuten. Ezin, ordea, Ameriketako ibilaldia lasai bukatu, aurreztutako dirua lapurtu egin nahi izan baitzieten. Onik atera ziren, ostera.

Europara itzultzeko txartela garestiegia zen eta, aldeztu aurretik, erabakia zuten ontzirenean batean lana bilatzea. Portura joan eta *Mercedes Larrinaga* itsasontzia ikusi zuten; hemen ere euskaldunik izango eta ontzira igo ziren ea herrikiderik ikusten zuten; baita aurkitu ere, inondik ere. Lehen ofizialarengana eraman zituzten eta honek galdetu euskaldunak ziren eta beraiek baietz, hala zirela. Eta horrela lortu zuten Europara itzultzea, kobratuz, gainera. Ingalaterrako Newportera iritsi orduko, Prudenek emazteak bidalitako kablegrama bat jaso zuen; bertan, etxera itzul zedila agintzen zion eta gehiago ez joateko Ameriketara, Josefak ondotoxo ezagutzen baitzuen bere senarraren bohemiar sena. Abenduaren seia zen.

“Selan jakin dau neure andriak bidean nasela? Esustekoa emon gura neutzan! Konta dotzonari sekulako astinddua emongo neutzan, ba” esan zion Echevarriari. Honek ondotoxo ezagutzen zuen Pruden eta horregatik ez zion adierazi berak bidali ziola emazteari abisua, Bilborako bidean zela eta Prudencio Ituarte lekeitiarrarekin zetorrela. Halabeharrez, Marcosen emaztea eta Josefa lagunak ziren eta horrela jakin zuen Josefak senarra zetorrela.

Newportetik La Rochelerako bidea hartu zuten; handik, trenez, Bordelera eta, jarraian, Donostiara etorri ziren; azkenean ere Bilborako bidea hartu zuten. Heldu dira Bilboko Atxuriko geltokira eta trenetik behetu direnean, bi emazteak zain dituzte. Josefak, bere senarrari –Lucrecia eta Carmenen aitari– besotik heldu eta esaten dio:

– Orain bai estosula eskapako, oraintxe bai honek irabazi dotzu partida!–
1910.eko Gabonak ziren eta bost urte eta erdi beren Pruden Bilbotik abiatu zen ezkeroztik.

Garai hartan, Josefa Chopiteak Bilbon jarraitzen zuen lanean, don Emiliano Iruñuelaren etxean. 1910. urtean, Iruñuela Bilboko burtsako presidentea zen eta emaztearekin bat, Josefari adierazi zioten Prudenekin berba egin nahi zutela. Elkarriketa luzea izan omen zen, itaun asko egin zizkieten. Ondoren, sukaldariari deitu eta Prudeni meriendatzen emateko agindu zioten. Bitartean, Josefarekin berbatan jarraitu zuten. Pruden sukaldean zegoela, Josefa etorri eta zera adierazi zion:

– Prudensio, etxeko jaunak da andriak adierasi nabe gu Bilbon geratzea gura dauela. Bilboko Boltsan beharra emongo dotzagu, zu bertoko portero da ni Boltsa garbitzen.
– Baina, selan? Nik es dot eskolarik da erdaras txarto eitzen dot.
– Nagusiek diñotzate ikasiko dosula. Da, gañera, Boltsa-etxian bisiko gara!

4. Euskal Herrian bizi, gerra galdu eta Venezuelara

Hurrengo urteetan Burtsan egin zuten lan senar-emazteek eta bertan bizi izan zen familia. Jaio ere, bertan jaio ziren seme-alaba gehienak: Federico, Koldobika, Josebe, Andoni eta Miren.

Garai hartan behintzat, Burtsako langileek debekatuta zeukaten bertan dirua sartzea; Ituartek, ordea, inbertitu ohi zuen. Irabaziak izan zituen; galerak ere bai, adibidez Lehenengo Mundu Gerrateko armistizioaren ondorioz. Burtsako Batzordeak birritan egin zion errieta dirua inbertitzeagatik. Lehenengoan, agindu zien ez zuela gehiago egingo. Handik aurrera, Josefa Chopitearen izenean agertu ziren salerosketak. Beste behin, dirua inbertitzeagatik bigarrenez ohartarazi ziotenean, ezin izan zuten zigortu ez baitzegoen ezer bere izenean; bere ohiko berba batzuk erabiliz “no me cogieron más en outside ni en penalty”. Honen haritik aipatzekoa da Pruden oso musulari ona izan zela eta berak zioen bezala, “musa bisiaren jokua da, nola bisian hala jokuan”.

Arestian esan bezala, zenbait urte eman zituzten Burtsan lanean. Era berean, nahikoa diru aurreztu zutenean, gabarra bat erosi eta garraio-negozioetan hasi zen. Handik zenbait urtetara uniformeak utzi eta bere kasa jarri zen lanean. Hamabi urte eman zituen gabarra-tratuetan, eta negozio gehienetan bezala, gorabehera ugari izan zituen.

Bizitza aurrera zihoan eta ez dut aipatu gabe utzi nahi gure amumaren erditze bat. 1921. urtea zen alaba Miren jaio zenean; Josefari karenta umetokian geratu zitzaion

eta, ondorioz, berrogeita bost egun eman zituen hilzorian, osatzen hasi arte. Hurrengo urteetan, Castaños kalean, beste bi alaba izan zituzten: Begoña, gure ama, eta gure izeba Maite.

Amaiztear nago. Etorri zen errepublika eta, berarekin batera, borroka politikoa. Gerra lehertu zen. Pruden, guduaren eraginez, lanik gabe geratu eta beharrean hasi zen, ordenantza lanetan, Eusko Jaurlaritzak Carton hotelean zeukan egoitzan. Familia sakabanatu egin zen: Miren, Bego eta Maite Ingalaterrara eraman zituzten; Andoni Belgikara; amuma eta alaba Josebe Frantziara joan ziren; Federico Santoñan harrapatu zuten. Ituarteke ondoratu egin zituen bere gabarrak Bilboko portuan matxinatuen ontziei eragozpenak sortzeko asmoz. Gero, ihesari eman zion, Iparraldera. Azkenik, Josefa eta bere zenbait alaba Donibane Loizunen elkartu ziren eta bertan bizi izan ziren Bilbora itzuli arte; hiri honetan gerraostea nozitu zuten, tamalez.

Azkena eman behar dut: Prudenek eta bere seme Andonik² Venezuelara emigratuko eta familia erreklamatuko dute: emazte Josefa eta alaba Josebe, Miren, Begoña eta Maite. Venezuela izango da euskaldun askori ongi etorria egingo dion herrialdea; eta, aldi berean, bertakoek mespretxuz *musiu* deituko diete atzerritarrei. Han, berregingo dituzte beraien bizitzak, lan-mota ezberdinetan arituko dira eta gazteak bertan ezkondu eta haur-mordoa jaioko gara. Baina, horiek guzti horiek beste gertakizun batzuk dira.

Amaiera gisa

Migrazioa XXI. mendeko gai garrantzitsuenetarikoa dugu mundu global honetan eta arlo ezberdinetan islatzen da: gizartean, ekonomian, kulturean, segurtatean eta abar. Nazioarte mailan, 2005. urtean 191 milioietara heldu zen emigranteen kopurua eta ia erdia emakumezkoak izan ziren; bestalde, Hego Euskal Herrian urtero areagotzen ari da etorkinen presentzia. Era batera, ezagunak dira fenomeno honen aurrean dauzkagun jarrerak. Debate honetan, ordea, anitzetan ahantzi egiten zaigu euskaldunok ere latzak pasa genituela eta etorkin izan ginela; ahaztu egin zaigu gosea pasa genuela, *esunia*, Amerika bila joan ginela, askotan legez kanpo, eta baditugula itsasontzietan ezkutuan ibilitakoak; atxilotu gintuztela atzerritar itxura izateagatik eta harrerako hizkuntzak ezezagunak genituela, mespretxatu gintuztela kanpotarrak izateagatik (*musiu* Venezuelan, *wandering* artzain ibiltariei Estatu Batuetan); eta guk ere, gogoan izan dezagun, gerrak izan ditugula. Bada, horixe dena ekarri nahi izan du gogora *Pruden eta Josefa:bi lekeitiar Ameriketean*.

2008ko apirila

Bibliografia

Pruden Ituarte eta Josefa Chopiteari buruzko informazioa: Ituarteren oroitzapenak eta familiak emandako datuak. Bestetik bi web orrialdeotan informazioa batzuk kaso egin ditut: Centro Vasco Euskal Etxea: <http://www.centrovascomexico.com>, eta Euskonews & Media: *Causas de la emigración vasca contemporánea*. <http://www.euskonews.com>

ANASAGASTI, Iñaki: “¿Itziar o Misia Isidra?”. ASCUNCE, J.A. eta SAN MIGUEL, M.L. *Los hijos del exilio vasco: arraigo o desarraigo*. Donostia: Saturraran, 2004.

² Andoni txirrindularia izan zen eta Venezuelako eta Ameriketako txapelkun. Munduko txapelketetan eta Helsinkineko olinpiadetan parte hartu zuen. Nola ez, “el vasco” deitzen zioten. ARZALLUS (20003).

ARZALLUS, A. "Andoni Ituarte, *el vasco*. Venezuelako txirrindulari euskalduna" *Argia* 2003ko irailaren 14a.

DUGLASS, A. W. (2003): *La Vasconia global. Ensayos sobre las diásporas vascas*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003

HALDE, J.I., ELORDIETA, G., ELORDIETA, A.: "The basque dialect of Lekeitio." *Supplements of Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio Urquijo"*, XXXIV. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1994.

FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: *La emigración vasca a América, siglos XIX y XX*. Colombes: Ediciones Júcar, 1993.

GARRITZ RUIZ, Amaya; SANCHIZ RUIZ, Javier: *Euskal etxea de la ciudad de México*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002.

LAXALT, R.: *Dominique Artzain xuberotar bat Nevadan*. Donostia: Elkarlanean, 2002.

ONU (Organización de Naciones Unidas): *Estudio mundial sobre el papel de la mujer en el desarrollo 2004: La mujer y la migración internacional*. Nueva York: Naciones Unidas, 2006.

RODRÍGUEZ QUIROGA, M.L.: *El fenómeno migratorio. Contextualización*. Lekurik aipatu gabe: INEM (datarik gabe).

RUIZ DE AZÚA, E.: *Vascongadas y América*. Madrid: MAPFRE, 1992.

SAN SEBASTIÁN, Koldo: *El exilio vasco en América. 1936/1946. La acción del Gobierno: política, organización, propaganda, economía, cultura, diplomacia*. Donostia: Txertoa, 1988.

VALLEJO MORA, G. *Empodera a las mujeres la migración de hijos y esposos*. Cimac | México, DF <http://www.cimacnoticias.com/noticias/05sep/s05091303.html>